

Daniel Bensaïd

Politika eta historia

Michel Surya: *Stéphane Courtois-ek* Komunismoaren liburu beltza-ren sarreran aurreratu duen tesiari aurre egin dioten arraro horietako bat izan zara zu. Tesi hori, orain argi dago, komunismoaren eta nazismoaren artean parekidetasun bat suposatzen saiatzen da. Horren aurka agertu zara historialari moduan. Hau da, komunismoaren historiari bere lodiera, bere konplexutasuna ematen ahalegindu zara. Bainan ikusita dago: historialari horiek komunismoari bere historia kentzen badiote, agian beste historia bat, liberal-kapitalismoarena alegia, des-historizatu nahi dutelako jokatzeko dute horrela. Ez litzateke hobe izango, orduan, horiei aurka eginez liberalismoaren historiari ez dagoela leporatzea? Ez dagoela historiari Merleau-Pontyk esaten zuen zentzuan, alegia, ez dagoela historiari “gizakien arteko elkarrekiko onarpen eta begirunea”-ren moduko gizadi baten etorrera egitaritzeko borondatearena baino?

Daniel Bensaïd: Komunismoaren liburu beltza-ren tesiak bi euskarri ditu. Alde batekin, nazismo eta komunismoaren artean paralelotasun kontable bat ezartzera jotzen du, lehenari abantaila maltzurra emanez; hortik dator hasierako eskaera, geroago bigarren maila batera utzia, hau da, “komunismoaren Nuremberg” baten eskaera. Bestaldetik – eta hauxe bihurtu da printzipalena eztabaidaren harira – Urriako hastapen iraultzailearen eta terrore estalinistaren artean jarraipen zurruna ezarri nahi du; horrela iraultzaren ideia bera erroizten saiatzen da, bere baitan omen bait darama eta ezinbestez kriminaltasuna.

Esaten duzu “historialari moduan” aritu naizela komunismoaren historia honi bere lodiera historikoa berreskuratzen ahaleginduz. Ez naiz bereziki historialaria, eta sentitzen dut *Liburu beltza* berez den eskandalu politiko eta intelektualak erantzun askorik ez badu sorrarazi. Nire baliabideekin, eta premiaz, paradoxa bat azpimarratzen saiatu naiz.

1986-1988 urteetan Alemanian eman zen “historialarien ezbaia”-k (ikus *Historiaren aurrean*, Cerf, 1988), “nazismoaren historizazio”-aren eta historia alemandarraren garai honen historizazioaren auzia azaleratu du. Nolteren edota Hillgruberren azalpenak alde askotatik politikoki erdeinagarriak iruditzen bazaizkirate ere, eztabaida honetan, horrearen absolutasun a-historikoaren edo Shoah-aren berezitasun alderaezinaren aitzakiarekin, ikuspegi historikotik sartzeari uko egitea jarraera ahula iruditzen zait, eta azken finean eutsi ezina. Horrela, nik ez dut berez nazismo eta estalinismoaren arteko alderaketa ukatzen. Bainan alderaketa horrek auzi gehiago sorrarazten ditu Courtois-en iruzurrak azalaratzen dituenak baino: zer da alderatzea? zer da alderagarria? zein da diferentziaren parte alderatze batean?

Hau esan da gero, ulertu behar da mendearen ulergarritasunak irabazi egingo duela erabat, nazismoaren dimentsio sozial, politiko, geopolitikoei buruzko azterketa sakon batekin, pentsatsetik libratzen gaituen deabrutze bati eutsiz baino. Paradoxa honetan datza: estalinismoa, duen berezitasunean, historikoki pentsatu beharrean, *Liburu beltza*-ren moduko ahalegin batek kontrako bidea hartzen duela: arazoa deshistorizatzen duela mitologizatu ahal izateko. Betiko musika zitala: “ideiak hil egiten (omen) du”.

Dekorazioa, orduan, jarrita dago, azpikere-

riaz koartada historikotik funtzio judizialera labaintzeko. Derrida parafraseatuz, etsigarria aurkitzen dut “historiari dagokionez gaur egun onartzen ari den tonu judiziala”. Hara hor jende exkaxa, konparazio eta ulermen elementuak sortu beharrean, epaile-rola hartu eta beren burua baimendutzat uste dute, ez tragedia ez hizkera ulertzen ez duten garaiak beren epaitegira dei egiteko. Beren erizpide arruntetara eramanez dituzte muturreko egoerak guztiz bereziak. Muturrekoaz (gera, gerra zibila, terrorea) aritzen dira Fabiusen presidentzia onberaren peko eztabaida parlamentario balitz bezala; eta beraiek Azken Judizioaren ministroak izango balira bezala. Bere *Bigarren ezgaraikoa*-n Nietzschek idatzi du honi buruz gauza osasuntsurik: “Epaile gisa, epaitu behar duzuten horiek baino gorago egon beharko zinateke, bainan zuen kalitate bakarra da beranduago iritsi zaretela... Orainaren indarrik handienak beharko luke iragana interpretatu... Berdina berdina epaitua... Bestela, iragana zuen mailara behar duzute”. Eta, jarraituz: “Bere antzekoak baino gertakizun handiagoak eta sublimeagoak izan ez duen horrek, ezingo du interpretatu iraganean izan den handi eta sublimea. Iraganaren hitza beti orakulo bat da. Ez duzute ulertuko ez bazarete etorkizunaren eraikileak eta orainaren interpreteak”.

Hona hemen gaur egungo arriskua: epaiketaren eta susmoaren mania. Chauvyk epaitzen du Aubrac, Bartosek epaitzen du London, Courtoisek epaitzen du Lenin! Azken kasu honetan, jokuan jarrita dagoena handia da. Ez da – uler gaitezen – errukia, herentziarekiko kultura. Nire ardura Walter Benjaminena da, ohartarazten zuenean garaileak garaitzen badira oraindik, “ezta hildakoak ere ez dira ziur egongo”. Zenbat hil dira komu-

nismo eta estalinismoa nahastea ez dadin inoiz zilegi izan? Horiek dira gaur egun mehatxatuak daudenak. Mehatxu honen aurrean horiek abandonatzeak geure etorkizun propioa kolokan jarriko luke.

Merleau-Pontyren formulari dagokionez, hau da, liberalismoaren (kapitalismoa esatea hobe litzateke) historia ezinari buruz, zerbait ekibokoa iruditzen zait (bainan ez dut orain buruan esaera horren kontestu zehatza). Agian berrartzen du Marxen formula ospetsu hura, zeinaren arabera mundua aldatuz ez da historiarekin amaitzen, prehistoriatik historiara igarotzen baizik. Bestela esanda, politikaren ideari atxekituriko libertadearen parte historian hedatzea (V. mendeko grekoek bazuten historia eta politikaren arteko ahaidetasun horren intuizioa). Zentzu honetan ideia lantzeko dago. Historiaren zatirik benetan historikoa, orain arte, nekagabe behin eta berriro hasitako emantzipazio mogimendu sakonaren baitan legoke. Kasu horretan, ez zen beharrezkoa izango, lehen urbilpen batean, presentearen miseriekin borrokan dagoen historia kritiko batez desinteresatzera gonbidapen gisa hartzea.

Michel Surya: *Zure azken liburuan, Apostu malenkoniatsua, aski zabal hitzegiten duzu Europaz. Bi ikuspuntutik ari zara horretaz. Esan daiteke, lehena, sinplifikatuz, funtsean ekonomiko eta soziala dela, hau da, politikoa. Hor kontatzen duzu, bai borondatea eta baita eszeptiko, prestatzen ari den Europa mundializatuari, berandu gabe, politikoki Europa europearra oposatzeko ikusten dituzun arrazoiak. Beste ikuspuntutik, filosofiaz ari zara eta aipatzen dituzu Husserl, Valèry, Derrida, Patocka... Hor, badirudi are zatituagoa zaudela: behialako Europa europeozentristaren mamutzarrak exortizatu nahian (Europa zuri,*

burgesa, kristaua, aurrealdean, era zentriperatoan, Schengen-en espazioa marrazten ari dena), bainan aldi berean sinistu ezinik nortasun historiko amankomun batean. Nahi al duzu honi buruzko nabardurak egin?

Daniel Bensaïd: Hala da. Badut lehen ardura bat, esan dezagun, berehala politikoa. Eguzkeren borrokan gaude eraikunta europearraren proiektu baten eta bere ondorio praktikoaren aurrean. Zerbitzu publikoak direla, inmigrazioa dela, enplegua dela, espazioak konjokatzera eramanak gaude eta dimentsio europearra kontutan hartzera behartuak. Prozesua are zabalagoa da. Arruntki mundializazioa deitzen zaion (benetan planeta mailan ematen ari den harreman merkantilen orokortzea zehazki adierazten duen) prozesuaren partaide da. Eskala aldaketaren prozesu handi honetan, espazio eta erritmoen aldaketa-mogimendu handi honetan, onartu daiteke Hannah Arendt-ekin “politika mundutik desagertzeko arriskua”, eta desagertu automatismo ekonomiko eta kontsolazio etikoaren probetxurako.

Izua dakarren ezabatze honen aurrean, mito nazionalaren inguruko krispazioa agertzen da ez soilik engainagarri, ezinbestez atzerakoia baizik. Pentsa daitezela nola irratitzen den “produzi dezagun frantziarra”-tik “lan egin dezagun frantzesak”-eraino, edota inmigrazio politikaren segurtasuneranzko deriba. Auzia da, bada, jakitea ia Europak osa dezakeen hiritartasunaren espazio politikoa bat. Neurri batean, uste dut baietz. Espazio kosmopolitiko unibertsala ez da oraindik zuzenean hiritartasun espazioa. Dagoena da espazio europearraren zirriborro bat. Legitimoa izateko sozial eta politikoa behar du izan merkantila eta monetarioa baino gehiago.

Egia esan, Maastricht-eko Europa errefuxatzea, Dublinekoa eta Amsterdam-eko,

nire aburuz, ez da dinamika europear honen errefuxatzea, lehiakorkeriaren logika errefuxatzea baizik, azken honek Europako izena zinkinduko bait du herrien aurrean eta makilkada mingarrien itzulera prestatuko du. Aduana eta monetaren batasunak, hats herrikoi konstituzioegilerik gabe, bere parte izan du Alemania modernoaren asalduretara. Gauza bera gertatuko da modu berean asmatu den Europan, aurreikusitako ezin dezakegun formekin. Eta, Europa liberala, benetan existitzen duena, Europa posible bakarra gisa eta datorren menderako diseino handi bakarra gisa aurkeztua izan dela kontutan edukita, kostuak zenbat eta handiagoak izango dira.

Jadanik, entzuten ari dira, poterearen diskurtsoetako jirabira kezkarriak. “Gure” komisari europearra Thibaud de Silguy harritzen zen duela gutxi euroarekin, Europak lehen aldiz, Inperio erromartarraren ondoren, moneta amankomuna berraurkitzen omen bait zuen. Noizko legioak?

Iruditzen zait bada, garrantzitsua, bila-kaera europearrari buruzko egin beharreko bataila politikoarekiko paraleloan, beste eztabaida bat irekitzea, agian filosofikoagoa, europar nortasunaren zentzu historikoari buruzkoa. Izan ere, egiten ari den Europari, kapitala eta gerenteen Europari, guztiz falta zaion legitimitate bat emateko identitate mitiko bat eraikitzeke tentazioa oso indartsua da. Eraikuntza honek tradizio kultural ebidente batean hartzen du euskarria. Kanten kosmopolitika bera muin eurozentriko honen inguruan zebilen: “gure kontinentean konstituzio politikoa”-k emango luke “egunen batean seguruenerik legeak beste guztiontzat”.

Horregatik garrantzitsua da galde ikurra jartzea identitate europearraren eta bere naturalizazioaren ebidentzia faltsuaren gainean. Derridaren testua, *L'Autre Cap*, ikus-

pegi interesgarria irekitzen zuen zentzu hone-
tan. Dударик ez, arazo honen inguruan duen
sentiberatasunak bere kokapen mediterrane-
arrarekin zer ikusteko du. Nire aldetik,
heredentzia europarra haina badut here-
dentzia mediterranearra, “andaluziaz” beteta,
edota, are zabalago oraindik, Latinoameri-
kara zabalduriko latinitateaz.

Egikaritzen ari diren itxuraldaketek ez
badute super-estatu-nazioa modukoa litza-
teke eraikuntza europarreara eramaten, bai-
zik eta konbinaketa batera, teilakatze batera,
espazio anitzen (ekonomiko, monetario, jurí-
diko, ekologikoen) interpenetrazio batera,
orduan komenigarria izango da ere, gurutzam-
endu eta mestizai kulturalak pentsatzea
identitate komunitarioak baino.

Erronka, gainerantzean, praktikoa eta poli-
tikoa ere bada. Eskala higikorren joku hone-
tan, posible eta desiragarria da hiritartasuna
eta naziotasuna bereiztea. Bien arteko identi-
fikazioa, oso sendoa Frantzian, haatik nahiko
berantiarra da (formalki XIX. mendearen
amaierakoa). Espazio geroz eta multinazio-
nalagoetan, populazioen nahasteetan, geroz
eta funtzionaltasun gutxiago du. Beharrez-
koa da, bada, hiritartasun politiko bat pent-
satzea, sekularizatua, laikotua, duntasuna-
ren fantasmatik askatua. Egia da zaila dela.
Bainan alternatiba, printzipio nazionalaren
unaduraren aurrean, duntasun erlijiosoen
erreibindikazioaren itzulera da, transnazio-
nalak eta transestatalak izatearen abantaila
bait dute. Hara hor modernitatearen para-
doxaren alde bat!

Michel Surya: Apostu malenkoniatsua *libu-
ruan amaitzen ari den mendeak atzean uzten*
duen “hondamendien pilaketa”-z ari zara.
Zure aldetik, dudarik gabe, Benjamin aipatzea
da. Eta zure liburu osoa da, batez ere amaie-

*raldean, indar mingots hori duena. Iraultza-
borondate ez-etsituaren eta iraultza egiteko*
*posibilitateari buruzko zalantza astun ia erra-
dikalaren tartean balantzaka. Eta hori da,*
hain zuzen, zure liburuaren izenburuak argi
eta garbi aditzera ematen duena. Apostu egi-
ten duzu (apostua agintekerazkoa da, eta
zurekin batera apostu egitera gonbidatzen
duzu). Bainan apostu hori ez da malenkonia-
rik gabe. Hau da ez dagoela aposturik ez ba
dio lekurik uzten porrotaren posibilitateari.
Beharrezkoa da argi izatea horretaz. Bainan
ez duzu uste, edota ez zaude beldur, malenko-
niak aurrera hartuko diola, baita irakurtzen
dizuten artean ere, eta ez ote ditu azkenian
horiek ere etsituko?

Daniel Bensaïd: Iraultzaren ideiarekin dagoen
arazoa da mito haina (zentzu soreliarreen),
kontzeptu ere badela. Beharko litzateke
bereizi (edo bereizten saiatu) teilakaturiko
esanahiak.

Marra loditan, esan daiteke iraultza (Irault-
za frantziarraren ondoren) garaiko gizartee-
tan aldaketa sozial eta politikoaren formula
algebraikoa bihurtu dela. Ikuspuntu honeta-
tik tentsio bat adierazten du, edota Kant-en
iraultza aurreko hizkeran esatearren, “profe-
zia politiko” bat, “geroaren itxaropen gogoe-
tatsua”, borondateak organizatzen eta itxa-
ron-horizontea egituratzen duena. Beste
mundu posible batean aztarna irekitzen duen
neurrian, ideia beharrezkoa da beti etsipen
arruntei aurre egiteko, egokitzapen taktikoak
egiteko eta politika zappingean disolbatu ez
dadin.

Guzti hau esanda, Iraultza frantziarrare-
kin marratzen den bezela, iraultzaren nozio
hori lotuta dago denboratasun modernoaren
elaborazioarekin, Koselleck edo Goulemontek
aztertutako “denbora historikoen semantika-
rekin”. Maila honetan, azelerazio, hobekuntza

erregularra, progresoarekin loturik dago.
Munduaren errepresentazio hau da amaitzen
ari den mendearen katastrofeen zigorpean
problematiko bihurtu dena. Ondorioz, uler-
garria da iraultzaren ideiak bere funtzio “mi-
tikoa” modu beretsuan ez badu betetzen
(geroaren irudi zehatzgabea, hala nola Sore-
len baitan greba orokorrak gertakizun estra-
tegikoaren irudi zehatzgabea eskeintzen duen
bezala).

Dena den, iraultzaren nozioa ez da funtzio
horretara murrizten. Iraultza nozioa karga-
tua dago, esperientziak egiten joan diren hei-
nean, eduki estrategiko efektibo batez. Garai
batean eduki horiei buruz praktikoki eztabai-
datzen zen: insurrekzio armatua, greba orokor
insurrekzionala, gerra herrikoi luzea, botere
bikoiztasuna... Eztabaida horiek badirudite
gaur egun guztiz urrunekoak. Badira horreta-
rako arrazoiak. Bata, eta ez txikienetakoa,
Marcos sub-komandante zapatistaren idatzi
berri batean zeharka azaltzen da. Estrategia
(Bonaparteren ondoren behintzat) indarrak
une jakin batean gune jakin batean biltzeko
arteak izan bazen, espazioen disoluzioarekin
eta botereen sakabanetarekin, zein da bilgune
hori sareen garai honetan? Eztabaida zabala.
Militarrak, zailtasun antzekoetan murgiltzen
dira Sobiet Batasunaren hondorapenaren
ondoren. Normala da: militarrak beti gerra
bat atzerago ari dira, esaten omen da, hala
nola iraultzaileek beti baduten iraultza bat
(edo bi)-ren atzerapena.

Malenkoniari dagokionez, zer ikusteko
gutxiago du zuk deitzen duzun “porrotaren
posibilitatearekin” (historia ireki batean,
posibilitate hau atxekia dago borrokaren ziur-
tasun-ezarekin, eta hori ez da inoiz arrazoi
bat ez borrokatzeko), beharrezko (egoerak
eskatzen duena) eta posiblearen dibortzioa-
ren sentimendu tragikoarekin baino. Irault-

zak ez daude harmoniatsuki arautuak. Beren irudia ez da batetortzearena, denboren diskordantzia baino. Ezgaraikoak, beti datozte goizegi edo beranduegi. Ezgaraikotasun hau, gaurkotasun-eza hori da hain zuzen bere irrupzioaren baldintza. Horregatik, bada, ekintzaile argitsuenek (Saint-Just, Blanqui, Guevara) dute horren sentiberatasun zorrotza, ez hainbeste porrot iraultzailearena, presente iraultzailearen tragediarena baizik. Horri deitzen diot nik beren “malenkonia klasikoa”, Péguy-ri hartuz malenkonia erromantikoaren nozio berezi hau. Blanqui, bestalde, erromantikoen etsai agerikoa zen. Bere malenkonia, Saint-Just-ena bezala, estoikoa da gehiago.

Eta nire irakurleengan malenkoniak apostuari gaina hartuko ote dion arriskuaz, mezu prezu desolagarriaren ordaina litzateke. Malenkonia ez da niretzat ekinta-ezaren kontsueloa, aitzitik baino: ilusiorik egiten ez den ekintzarako akuilua (eta ez nahasi *pasiorik gabeko* ekintzarekin), bere buruari historiak kontatzen indarra galtzen ez duen konpromezua, sinismenik gabe abian jartzen dena. Gehiegi eskatzea al da? Are zailagoa da? Hiritartasun ez-nazionala bezala? Ikusiko dugu. Saiatu beharra dago. Sinismen-ezaren pasio hau, dena den, federik gabeko sinismenaren pasio moderno galgarriei aurre egiteko gai den bakarra dela iruditzen zait.

Michel Surya: *Zuk literaturari leku berezia ematen diozu zeure pentsamenduan. Saia zaitzake zein leku den hori argitzen?*

Daniel Bensaïd: Jakinda zein punturaino gauzatxo honek ukitzen duen zure bihotza, ardura ematen dit horrela, gogoetarako denboratxo bat hartu gabe, bapatean erantzutea. Izan ere horrelako galderarik ez diot inoiz nire buruari egin.

Konformatu beharko naiz, bada, hipotesi batzurekin edota oiartzunak jasotzearekin. Agian literaturak, kontzeptua beti iristen ez den lekuraino joaten ahalbidetzen du? Politikak – Lenin da ondorengoa esan zuena – badu bere amets aldea, etorkizuneko ametsa, profetia politikoa (oraindik), lodiera pasionala eta emozionala, arrazoi diskurtsiboak agortzen ez duena. Dena den, ez dut inoiz pentsatu erreferentzia literarioetara jotzea apaingarri gisa, zuzen esateko zail dudan hori bestela esateko beharrezko modua bezala baizik, gaira bestela urbiltzeko modua, zeharka edo inguruka. Hizkera zientifikoak metaforaren beharra badu, *a fortiori* politika filosofikoak.

Eta zergatik erreibindikatzeko zuen Marxek indarrez, eta ironiarik gabe, *Kapitala* liburua idazkeraren izaera estetiko (eta nik gogo onez onartzen diot izaera hori)? Bera bazekien idazkera horrekin gehiago eta beste modu batez esaten zuela kapitalaren azterketa anatomikoarekin baino. Alde honetatik

Kapitala-k harreman berezia du *La Comédie humaine*, *À la recherche du temps perdu*, *Ulysse* edo *L'Homme sans qualités* liburuekin.

Eta zergatik klasikoaren artean zenbait lanek (tragiko greziarrak, Racine, Pascal, Proust bere erara) ez bakarrik hunkitzen eta emozionatzen gaituzten oraindik (Marx-ek greziarrekin harritzen zen bezala), baizik eta modu estrainoz gaurkotasunezko bulkada iraultzailea ere mantentzen duten (Racine barne)? Eta zergatik esaten digu Sadek Iraultzari buruz gehiago, Stendhalek Errestaurazioari buruz, Flaubertek 1848-ri buruz, Baudelairek Bigarren Inperioari buruz... garai haietako panfleto politiko gehienak baino gehiago? Agian, lan horiek igortzen digutelako gizatasun eta unibertsaltasun promesa misteriotsua, oiartzunez oiartzun errepikatua.

Funtsean, neure oinetara behin eta berriro etortzen naiz. Denbora eta espazioen aniztasunean, politikaren espazio-denbora erabakiorra da, bainan sentimenduek, edertasunak, pentsamenduek badute ere beren erritmo propioak politikarenera makurtu ezin direnak. Interesgarriena, espazio horien artean ibiltzea da, espazio horien harreman-ateak, igarobide sekretuak, paretak hautsi gabe, bilatzea.

Michel Suryarekin elkarrizketa. Libre choix, Bruxelles, otsaila 1998.

Penser Agir, liburuan argitaratua. 2008